

Euskara eta Unibertsitatea lelopean abiatuko da MUko I. Argazki Lehiaketa

2009/11/05

MUko Euskara Batzordeak bultzatuta hasiko da lehiaketa berri hau. Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna girotu nahirik, ilusioz ekingo diogu ekimen honi. Euskara bidelagun hartu eta 3 fakultateak batuko ditu. Parte hartzaile ugari espero dugu MUko langile eta ikasleen artean.

Lehiaketa honen xehetasunak labur-labur, hauexek:

Gaia: Euskara eta Unibertsitatea

Parte hartzaile bakoitzak argazki bat aurkeztu behar du, lelo batez lagunduta

Kontuan hartuko dira: argazkiaren kalitatea, leloa eta argazkiaren arteko lotura eta originaltasuna.

Epea: azaroaren 23ra arteko tartea dago argazkiak aurkezteko. Bidali hona: argazkilehiaketa@eps.mondragon.edu

Epaimahaia: Fakultateetako kideek eta MUko ordezkari batek osatuko dute

Saria: Netbook eramangarri bat

Publikoak ere argazkirik onena aukeratu ahal izango du, **MUittuk** daukan Face Booketik eta publikoak aukeratutako argazki irabazleak ere saria jasoko du.

Irabazlea abenduaren 3an ezagutuko dugu, irabazleari dagokion fakultatean.

Lanean hasi besterik ez dago. Ekin lanari!

